

Elgoibar - 1272. zenb.
XXI. urtea - 2023-01-27



TOKIKOM

BARREN



Elgoibartik Silicon Valleyra

Mikel Rumayor



II. URTEURRENA
Enrique Galán Jusué
2021eko urtarrilaren 29an hil zen.

Beti gure bihotzean.



XI. URTEURRENA
Mari Carmen Gabilondo Etxabe
2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 59 urte zituela.

**Behin atzera begiratzuz gero,
izan dadila atzera oso.
Aurrera jarraitzeko,
zer hobeto
gaztaroko makulua baino.**




VII. URTEURRENA
**Garbiñe
del Hoyo Murua**

2016ko urtarrilaren 28an hil zen,
48 urte zituela.

**Zeruko izarren artean
aurkitu duzue tokia,
lurrean utzi dituzuen
izarrei emateko argia.
Zuen indarrak emango
digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera
jarraitzeko bidia.**

Zuen familia



II. URTEURRENA
**Desiderio
del Hoyo Amigo**

2021eko otsailaren 19an hil zen,
78 urte zituela.

Haien oroimenez urteurreneko meza izango da,
domekan, urtarrilaren 29n, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zuretik eskerrak.



Argitaratzailea:



Maialen Sanchez

Idazlea

Bizilagunak, lagun



***“Bizi-gune handietan,
biztanleria ez ezik,
mesfidantza eta beldurra
ere nabarmen handitu dira”***

Babeslea: Laguntzaileak:



Urteak aurrera joan ahala, etxeko atea irekita uzteko edo komunitateko bizilagunekin eguneroko bitzita konpartitzeko ohitura eder haieztatik urrunago gaude. Garai batean, nire amonak ongietorria egiten zien atera hurbiltzen zitzaizkion guztiei; etxeko sukaldeak parez pare ematen zuen ate nagusira, eta mahai gainean kafea edo jateko zerbait ematen zitzaion agurtzera hurbiltzen zenari. Zoritxarrez, pentsaezina da bizi garen garaiotan horrelakoak gertatzea. Herri txikietan, eta beren zorionerako, jendea bizi den etxe gehienek zabalik dituzte oraindik ateak, bizilagunen bat agurtzera edo laguntza eskatzera noiz hurbilduko zain. Etxe bateko ate irekiaren atzean, beti norbait dago auzokide baten zain, harrera egiteko prest.

Zoritxarrez, bizi-gune handietan, biztanleria ez ezik, mesfidantza eta beldurra ere nabarmen handitu dira. Orain, ezta axolagabekeria ere ezin da ate bat irekita aurkitu. Egia da askok ez ditugula eskailera-kuota partekatzen dugun portaleko jabeak ezagutzen. Gure harremana komunitateko bileretara mugatzen da, eta normalean, aztertu beharreko gaiek etsaitasuna sortzen dute, elkarrenganako gerturatze bat baino gehiago.

Hori izan ohi da askok mundutik urrun bizitzea amesteko arrazoia, edo bakarrik mendi erdian bizilagunik gabe bizitzearen arrazoia; beste batzuek, aldiz, guretzako duen paketea pareko ateko bizilagunari uzteko eskatzen diogu banatzaileari, eta hura ere bada bizilagun ona. Nik zorte handia izan dut eta dut ataria partekatu dudan guztiekin; inoiz ez dugu atea irekita utzi, ezta kafea hartzera gonbidatu ere auzoa, baina elkarri lagundu diogu behar izan dugunean, eta hori oso garrantzitsua da. Uste dut zorte handia dela etxeko eskailerak igotzerakoan bizilagunekin gurutzatzea inorenganako beldurrik sentitu gabe. Beraz, gogorazten dizut bizilagun on bat izatea altxor bat edukitzea dela.

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Etxera!!

34 urte joan dira urruntze-politika indarrean jarri zutenetik, sufrimendu psikologiko, emozional, ekonomiko eta fisiko ikaragarriak sortu dituena. Astero ehunka kilometro egin behar izatera eraman gaitu, eta ondorio batzuk bereziki larriak izan dira; nola ahaztu, adibidez, errepideetako joan-etorrietan hil diren 16 pertsona? Zorionez, 2023. urtearen hasierarako urruntze-politikaren amaiera espero dugu. Euskal gizartearen parte garrantzitsu baten erantzun eta mobilizazioari esker lortu da hori; eta poztekoa da, dudarik gabe. Baina salbuespen politikak indarrean jarraitzen du. Horregatik trabarik gabeko bide bat aldarrikatzen dugu: gradu aldaketak eta espetxe-baimenak salbuespenik gabe ezar ditzatela; legeak dioena bete dadila.

Horiek horrela, egoera berri hau hobeto adierazteko, irudia aldatu dugu. Geziei jarraituz Etxera Bidea Gertu mezua egia bihurtzen hasteko unea da. Irudi hau bazter guztietara hel dadin nahi dugu. Urteetan balkoietan ikusi izan dugun *Presoak Euskal Herrira*-ren ordeztu Etxera dioenera pasatu nahi dugu, egoera berriari egokitzeko. Elgoibarren, gaur 20:00etan, Kalegoen plazan egingo dugun elkarretaratzean ere hori irudikatu nahi dugu. Banderola berriak salgai izango ditugu bertan, eta argazki bat aterako dugu ikur nagusia bera izango delarik. Animatu!

Sare Elgoibar

Erraustegiaren bueltan kutsadura hazten

Zubietako (Donostiako) erraustegiak kutsadura airetik isurtzen jarraitzen du. Eta hori bakarrik ez, lurzorura ere begiratu beharra dugula ohartarazi digute azken urteotan Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak (Toxi-cowatch fundazio herbehereetarrarekin lankidetzan) egiten ari den urteroko kontrol herritarraren emaitzak ikusita.

2021ean eginiko azterlanari buruzko xehetasunak aurkeztu dira. 2021ekoek aurreko urteetan izan den joera berretsi dute. Erraustegi inguruko goroldio eta oilategietako arrautzak baliatu dituzte neurgailu gisa. Bertan metatzen doazen gai toxikoen bilakaera aztertzen dute urtero. Hauxe da panorama: urtez urte emaitzak okerragotzen doaz, erraustegiaren bueltan kutsadura hazten. Malen Azpiazu Zubeldia kimika fakultateko ikasleak goroldioetan metatzen doazen toxikoak neurtu ditu airean dagoen kutsadura deduzitzeko. Zenbait metal astunetan igoera nabarmena izan dela ondorioztatu du.

Zubietako plantatik hurbil dauden hiru oilategietan datuak ere bildu dira. Bi, erraustegiaren iparraldean kokatuak daude; hirugarrena, hegoaldean, Andoain inguruan. Iparraldeko oilategietako arrautzetan oraingoz aldaketa nabarmenik ez dela izan ohartarazi dute. Hegoaldekoan, aldiz, bai; oso balio altuak dioxinetan, 2021eko azterlanaren arabera. Ez da kasualitatea, ipar parteko haizea sarriago izaten baita inguruotan.

Guzti honek ez al dizue beldurra ematen? Niri bai.

A.I.Z.



LAGUNAK
colchonaria textil hogar

%25eko beherapena
edozein izara
eta mantetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



San Roke ermitarako errebuelta hau arriskutsua da:

"San Roke ermitarako bidean, autokarabanen aparkaleku parean, errebuelta itxi bat dago, eta ikusmen oso murrizta dauka. Ez da ikusten paretik autorik datorren edo ez, eta gainera, bidea oso estua da. Iruditzen zait ispilua jartzeak egoera hobetu dezakeela. Eskerrik asko".



San Anton Eguneko haur parkea leku itxiren batean jarri behar zuten:

"Euriaz gain, sekulako hotza egin zuen San Anton Egunean, eta umeentzako puzgarriak Sigman jartzea ez zen ideia ona izan. Beste urte batzuetan ikastolako frontoian jarri izan dituzte, eta leku hura ere epela ez den arren, Sigmako aparkalekua baino epelagoa bada. Edo bestela, aparkalekuko gortinak itxi behar zituzten gutxienez, idi-probetan egiten duten moduan. Hurrengorako kontuan hartzea eskertuko genuke".



Eskerrik asko Maalako iturria berriro jartzeagatik:

"Ilusio handia egin dit Maalako iturria berriz ere leku berean ikusteak. Obrak egiten hasi zirenean pena eman zidan iturria handik kentzeak, gure umetako oroitzapen asko gordetzen dituelako iturri horrek. Eskerrik asko mantendu izanagatik".



Txalo bat Elgoibarko Udalari, zapatuetan ludoteka zabaltzeagatik:

"LH4-6ko ikasleentzako larunbat arratsaldetan Ludoteka zabaltzea asko eskertzen da. 9-12 urte tartera egokitutako eskaintza oso ona da. Eskerrik asko eta txalo bero bat".



Orain arte egindakoa aztertu eta zer egin adosteko bilerara deitu du 24/7 Plataformak

Batzarra antolatu du 24/7 Plataformak urtarrilaren 31rako (martitzena) eta parte hartzera deitu ditu herritarrak. Azkeneko hilabeteetan emandako pausoak aztertuko dituzte, bai eta aurrerantzean eman beharrekoak adostu ere. Batzarra Herriko Antzokian egingo dute, eta 18:30ean hasiko dute. Bi eskaera nagusi ditu 24/7 Plataformak: Elgoibarko anbulatorioan larrialdi zerbitzua eta 24 orduko etengabeko arreta zerbitzua berreskuratzea, eta osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoaren alde indarrak batzea.

Elgoibartarrek emandako 5.500 sinadura bildu eta Eusko Legebiltzarrerara eraman zituzten iaz plataformakideek eta lagun ugari mobilizatu dituzte azkeneko hilabeteetan. Alderdiekin eta instituzio ezberdinekin ere izan dituzte harremanak, eta Legebiltzarreko Osasun Lantaldearen aurrean egindako agerraldira ere



eraman zituzten beren eskaerak. Era berean, aipatzekoak dira, hilerro, anbulatorioaren aurrean egin dituzten mobilizazioak, bai eta iazko urte amaiera aldera Elgoibarren egin zuten manifestazioa ere. Hala ere, eginahalak egin arren ezer ez dela konpondu salatu dute eta horregatik borrokan jarraitzeko beharra ikusten dute. Hain zuzen ere, aurrerantzean zer pauso eman erabakitzeko antolatu dute bereziki datorren asteko bilera.

Mendaroko Sendi Anaitasunak urteko batzarra egingo du domekan, hilaren 29an

Azkeneko bi urtean ez dute batzar nagusirik egin, pandemiagatik, baina aurten bai. Urtarrilaren 29rako antolatu du Sendi Anaitasunak batzarra, azken hiru urteetako kontuen balantzea aurkezteko. Batzarrerara agertzen ez den bazkideak hamar euroko isuna ordaindu beharko

du. Era berean, zuzendaritzarako erreleboa ere eskatuko dute. Aurten bi lagunek lagako dute zuzendaritza taldea eta ordezkioak behar dituzte. Izan ere, orain daudenak bi urterako sartu ziren eta bost urte bete dituzte. Azpilgoetako elizan egingo dute batzarra, 11:30ean hasita.

IMHko Campusa bisitatu dute Bizilabe programako Elgoibarko ikasleek



50 bat ikasle daude aurten Bizilaben izena emanda eta joan den urtarrilaren 18an Elgoibarko IMH Campusean izan ziren, bisitan. Bizilabe Elgoibar proiektua Udalak eta Elhuyarrek sustatzen dute, eta herriko ikastetxeen, tokiko eragileen, ikerketa-zentroen eta enpresen arteko harremanak eta sinergiak sortzen ahalegintzen dira, gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko, ekintzailetzarekiko eta sormenarekiko interesa eta motibazioa sustatzeko.

Zigilu bildumagileak Elgoibarren elkartu dira



Euskal Herriko Filatelia Federazioak urteko lehen batzarra egin zuen zapatuan Elgoibarren, eta ondoren, zigilu erakusketako itxiera ekitaldia egin zuten Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkartekoek. Euskal Herriko eta kanpoko hainbat probintziatik etorritako bildumagileen zigiluei esker osatu dute aurten ere erakusketa, eta banan-banan eman zizkieten guztiei eskerrak. Udaleko agintariei eta Correos posta bulegoko zuzendariari

ere agertu zioten esker ona, eta azkenik, Morkaiko-Leizarpe Espeleologia taldekoak omendu zituzten, elkartearen 50. urtemugaren harira. Angel Mari Tobajasek jaso zuen oparia, baina ekitaldian izan ziren Evaristo Rodriguez eta Javier Vargas ere. Espeleologia taldekoei emandako figura berdina eman zieten gainerako partaide guztiei ere, eta horrez gain, aurtengo erakusketarako espeleologia oinarri duen zigilu markatzailea ere atera zuten.

Iñiguez Karkizaon aisialdiko gunea egiteko proiektua aurkeztu du Udalak

Iñiguez Karkizaon eraikitzen diharduten etxebizitza berriei loturiko berdegunean, A-8 autobidea eta Toletxe zein San Pedro kaleetako etxebizitzaren artean dagoen berdegunean, aisialdi gunea bat egiteko proiektua aurkeztu du Elgoibarko Udalak. Babes ofizialeko 70 etxebizitza eraiki zituzten inguru horretan, eta obrak amaitzen dituztenean, 124 etxebizitza gehiago izango dira. Horregatik, erabaki dute aisialdirako gunea bat behar dutela inguru horretan. 15.000 metro koadro inguruko lur-saila hartuko du aisialdi gunea berriak, eta erdia inguru erabiliko dute haurrentzako jolaserako espazioa sortzeko. Haurrentzako jolas gunea horrez gain, kalistenia parke bat, urmael bat eta 30 baratzentzako lekua ere egingo dute. Elementu horiek guztiak berdegunez inguratutako pasealeku batek lotuko ditu, eta gaineko aldean basoa izango du. Aisialdi gunea horretarako sarrera Andonenea etxearen ondoan egongo da, Albitzuriko industrialdera igotzeko bidean dagoen bihurtutako paretetik.



2.026 sinadura bildu ditu Karakate Bizirik plataformak

Green Capital enpresak Karakaten eraiki nahi duen zentral eolikoaren kontra sinadurak batzen jardun dira Karakate Bizirik plataformakoak, eta astelehenean amaitutzat eman zuten kanpaina, 2.026 lagunen sinadurak batuta. Plataformatik eskerrak eman dizkiete kanpainara batu diren norbanako eta talde guztiei, bai eta beren establezimendu eta dendetan sinatzeko aukera eman duten Elgoibarko dendari eta tabernariei ere. Sinadurak udaletxera eramatea dute orain hurrengo lana.



Otsailaren 4rako arbolak landatzera deitu du Baso Biziak elkarteak

Lurjabe bik Lurgaia Fundazioari lagatako bosna hektareako bi sailetan, Muskirutzu inguruan, arbolak landatzera deitu du Elgoibarko Baso Biziak elkarteak otsailaren 4rako. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira egun horretan, 9:00etan, eta handik autoak jendez bete eta landaketa lekuraino abiatuko dira. Izena emateko: info@lurgaia.org. Arropa eta oinetako erosoak eramateko eskatu diete deialdira batuko direnei. Gainerako guztia, erremintak eta lanerako eskularruak, Lurgaia Fundaziokoek jarriko dituzte. Landaketa amaitu ondoren, hamarretakoa egingo dute.

Arnobideko bidegurutzetik autobide azpirainoko zoladura berritzen ari dira Mendaron

Emeterio taberna zegoen ondotik A-8 autobideko zubirainoko zoladura berritzeari ekin diote Mendaron, Udalak eskatuta. Excavaciones y Transportes Orsa S.L. enpresa ari da lanok egiten, eta obrek 24.025,68 euroko aurrekontua dute, BEZ gabe. Era berean, Kurutzgain industrialdeko eserlekuak berritu dituztela eta brigadarako orotariko ibilgailu bat erosteko lizitazioa hasi dutela jakinarazi dute Udaletik. Ibilgailua erosteko aurrekontua 42.350 eurokoa izango da BEZ barne eta lizitazioa aurkezteko azken eguna urtarrilaren 30a izango da.

Eskola jazarpen egoerak minimizatzeko ingurune seguruak sortzeaz ariko dira gaur Mendaron



Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren TREBA Gazteak doako gazteentzako prestakuntza programaren barruan, *Bullying* edo eskola jazarpen egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu hitzaldia emango du Izaskun Lopez de Torre psikologoak gaur, barikua, 18:00etatik 19:30era bitartean, Mendaron. Hitzaldia udaletxeko pleno aretoan izango da, eta interesatuek izena eman behar dute aurrez, berdintasuna@mendaro.eus helbidera idatzita edo 943 033 292 telefono zenbakira deituta. Arrisku-egoerak identifikatzen ikasi, ingurune seguruak nola landu daitezkeen aztertu eta haurren eta nerabeen hezkuntzan familiaren babes-funtzioak duen garrantziaz ariko dira.

Udaletik jakinarazi dute apirilean hasiko direla Elgoibar-Eibar bidegorria argizatzen

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Siletetik eta Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute argiteria publikoa jarriko dutela Elgoibar-Eibar bidegorrian. 567.916 euroko aurrekontua izango dute obrek eta apirilean hastekoak dira lanean, abuztu alderako amaitzeko. Izan ere, lau bat hilabeteko lana izango dutela aurreikusi dute. "Betaurreko moreak jantzita egingo ditugu bidegorriko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko lanak. Bizikletentzako eta oinekoentzako bideei begiratu diegu berdintasunaren ikuspuntutik, segurtasuna bermatzeko. Segurtasuna eta arrisku pertzepzioa gutxitzea ezinbestekoa da emakumeek ere azpiegitura hauek erabili eta goza ditzaten", esan du Rafaela Romero Mugikortasun diputatuak.

Kandelario eta San Blas eguneko elizkizunak, Elgoibarren eta Mendaron

Otsail hasiera honetan ugari dira ohitura eta sinesmen egunak. Otsailaren 2an Kandelario, 3an San Blas eta horien ostean Santa Ageda bezpera eta Santa Ageda Eguna. Askok eusten diote oraindik Kandelario egunez mezara joan eta etxeak eta ondasunak babesteko kandelak bedeinkatzeko ohiturari, bai eta San Blas egunez opilak eta leporako lokarriak bedeinkatzeko ohiturari ere. Elgoibarren, San Bartolome parrokian ospatuko dituzte bai Kandelario eguna, bai eta San Blas eguna ere. Otsailaren 2an meza emango du parrokoak, 10:00etan, eta kandelak bedeinkatuko dituzte gero. San Blas egunez, berriz, bi ospakizun izango dira. 10:00etan, sanblasak bedeinkatuko dituzte, eta 19:00etan emango dute meza eta opilak ere bedeinkatuko dituzte. Egun horretan hiletarik balego, hileta ondorenean egingo lukete sanblas opilen bedeinkatzea. Mendaron, berriz, San Blas egunez ospatuko dute meza, Azpilgoetako elizan, 19:00etan, eta kandelak eta sanblas opilak ere bedeinkatuko dituzte.

Otsailean konponduko dute Ibaitarte industrialdean hondoratutako ezponda



Otsailean dituzte hastekoak Ibaitarte industrialdean hondoratuta dagoen ezponda zatia berritzeko eta egonkortzeko lanak. 2021eko abenduko euriteen ondorioz hondoratu zen ezponda. Orain, lau metroko harri-lubeta eraikiko dute ibai ertzean, ondoren ezponda bete eta profilatzeko, malda egonkortzeko. Azkenik espaloi zatia eraikiko dute. Asfaltos y Construcciones Morga SL enpresak egingo ditu lanak eta 54.719,91 euroko aurrekontua izango dute, BEZ gabe. Lau asteko epea izango dute.

Martitzenean hasi ziren Mendaron ospitalerako igogailuen egiturak jartzen



Joan zen ostiralean hasiko zirela iragarria bazuten ere, martitzenean ekin zioten Mendaron ospitalerako igogailuen egiturak jartzeari, eta itxita izan zuten kalea tarte batez. Bi igogailuren bidez lotu nahi dira Kilimon etorbidea eta ospitalea, 27 metro inguruko desnibela. Ekainean hasi zituzten obrak eta martxorako amaitzea dute aurreikusita. Construcciones Amenabar S.A. enpresa ari da egiteko horretan.

INURRIEN BESARKADA BIZITZARI

✍️ Aina Argota

Bularreko minbiziaren ikurra arrosa koloreko xingola izan arren, argi diote *pink* baino gehiago *punk* direla, minbizia, zerbait bada, *marroia* delako, "marroi handia". Minbizia diagnostikatu zieten Mendaro eskolan irakasle den Mari Seara Eizagirreri (Deba, 1972) eta haren lagun Jordina Arnau Roigi (Selva del Camp, Katalunia, 1991), eta askotan sentitu dira itolarrian, baina halakoetan, burua altxatu eta bititza besarkatzea erabaki izan dute, hasierako desesperazioan ezin delako bizi. Horregatik batu dira Izan Iñurrira, minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraldatzaitetik lantzeko Lasarte-Orian sortu zuten elkartera. Izan Iñurriren izatea zabaldu nahi dute orain Debabarrenean, inurrien tribuaren indarra ezinbesteko ikusten dutelako aurrera egiteko.



Jordina Arnau Roig eta Mari Seara Eizagirre.

Minbiziaren aurkako tratamendua jasotzen ari zen garaian ezagutu zuen Mari Searak Jordina Arnau, eta zer den bititza: sendagiria jasota pozarren onkologikotik irten zen unean jakin zuen Jordinari bularreko minbizia diagnostikatu ziotela. Berarekin gelditu nahiko lukeela esanez hitzordu eske ari zitzaion laguna whatsapppe. 2019ko uztailaren 4a zen. Berrito minbizia, berrito eztarrian korapiloa. Gaixotu zenean berak falta izan zituen erreferente haien bila ari zen orain laguna. 28 urte bete berriak zituen Arnauk, eta lanpostua eta gertuko ingurua laga eta Kataluniatik Euskal Herrira bititzera iritsi

berria zen. Gaztea zen, familian ez zuen minbizi kasurik izan aurrez, eta horregatik seguraski, ginekologoak berak ere mamurik ez ikusteko esan zion, bularrean gogortasun bat sentitu zuela esanez ikaratuta joan zitzaion estreinako aldian, baina iritsi zen "hostiakoa". "Denbora galduarazten ari nintzaiola ere sentiarazi zidan ginekologoak, baina insistitu nuen eta biopsiaren emaitzekin batera iritsi zitzaidan gero danbatekoa. Kaka eginda nengoen, izugarriko beldurra nion sufritzeari. Nik aukeratu ez nuen mundu baterako VIP sarrera jaso nuen, errusiar mendiaren itxura duen eta bititza osoa aldatzen

digun mundurakoa, eta eskutik heldu eta bere prozesua bizipenetatik kontatuko zidan norbait behar nuen, minbiziaren inguruan dena delako oso estereotipatua, denak dirudielako beltza, oso homogenea eta heriotzari oso lotua; beste diskurtso bat behar nuen", azaldu du Arnauk. Minbizia inguratzen duten tabuak uxatuko zizkion norbait nahi zuen, kontatuko ziona bazekiena, minbizia marroi handia dela, baina esango ziona, baita ere, sarri isiltzen dena: minbizia duen bitartean pertsona hori bizirik dagoela eta beraz, bizitzan egin dezakegun dena egin dezakeela: bizi, negar, barre, maitatu, desiratu... "Minbiziaz hil daiteke, bai, eta tratamendua gogorra da, baina zergatik mugatu behar gara gaixotasuna biktima paperean bizitzera? Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi; izango zen izan behar zuena, baina bizirik nengoen eta bizi nahi nuen; eta hala egin nuen", dio horren harira Searak. Pentsakera hori izateagatik minbiziaz arinkeriak hitz egitea leporatu dietenik ere izan dela aitortu du Arnauk, eta azpimarratu du: "Ez diogu garrantzirik kendu nahi ezerri. Amorragarria eta gogorra da hau dena oso, eta errespetatzen ditugu, jakina, minbizia bizitzeko era guztiak, baina subjektu aktibo garelako defendatzen dugu guk"

Diskurtso eta egiteko hori du Izan Iñurri elkarteak sorreratik. Julene Illaramendi, Miren Cuervo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten taldea, Illaramendiren ama [Eba Elexpuru] minbiziaz hil eta bi urtera, eta Elexpuruk gorputzean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena. Sortzaileek aitortua dute pretentsio handirik gabe sortu zutela elkarte, minbizia dutenen alde zerbait egiteko, eta hala hasi zirela kamisetak eta zapi solidarioak josten eta saltzen, dirua bildu eta dohaintzan emateko [Zapi bat erosten duen pertsona bakoitzeko gaixo batek beste zapi bat jasotzen du]. Orain, "eklosioan" dago elkarte. Iazko otsailean batu ziren talde eragilerak

***"Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi;
minbizia nuen, eta izango zen izan
behar zuena, baina bizirik nengoen
eta bizi nahi nuen;
eta hala egin nuen gainera!"***

- Mari Seara Eizagirre -

***"Dena dago pentsatuta ama izateko
dugun eskubidea bermatzeko, ama izan
nahi dugunerako. Desira sexualik izango
dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik
kanpo gelditzen da"***

- Jordina Arnau Roig -

Jordina Arnau eta Olatz Mercader, eta geroztik, antolatu dituzte bertso-saio solidarioak, biluztu dira eta sortu dute egutegi bat minbizia dutenen errealitatea eta gorputzak erakusteko, sortu dituzte podcastak [(MIN)Bizi euskaraz eta *Dragón Cáncer* gaztelaniaz], antolatu dituzte formazio saioak eta arteterapia saioa, tematu dira dibulgazioan eta ikerketan, eta ehundu dute minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenen sare bat, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. Sortu dute "espazio libre, seguru eta konfiantzazkoa" minbizia normalizatzeko eta gaixotasunaren inguruan taburik gabe hitz egiteko. Eta egiten dute hori dena, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, osasuna ere, gizonezkoen ikuspegitik aztertzen delako gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak ere jaso dituztelako sarri.

PATRIARKATUAREN ITZALA

"Emakumeok programatuak izan gara gure gorputzak besteek ikusten eta sentitzen dituzten bezala ikusteko, guk nola sentitzen ditugun eta nola erabili nahi ditugun ikusteko baino gehiago", hasi du haria Searak. "Dena dago prestatuta ama izateko dugun eskubidea bermatzeko. Esterilizazioa eragiten du tratamenduak, baina hasieratik esaten digute obuluak gordetzeko aukera dagoela, ama izan nahi dugunerako. Desira sexualik izango dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik kanpo gelditzen da. Ez dute halako galderarik espero gugandik eta ez da horren inguruan azalpenik ematen", gehitu du ondotik Arnauk. Gaur gaurkoz, bularrekoa da minbizirik zabalduena emakumezkoetan eta prostatakoa gizonezkoetan, baina nabarmendu dute gizonezkoen beharrak asetzeko ikertu beharreko dena ikertu den arren, oraindik ez dela ikertu bularreko minbiziak zer eragin duen emakumeen sexualitatean. "Gurea garrantzirik



Izan Iñurri elkartekok argi dute minbizia izatea ez dutela beraiek aukeratu baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela.

gabeko kastrazio kimikoa da, gure gorputzak erreproduziorako eta besteen desirak asetzeko daudela uste baita", esan du Arnauk. Eta horregatik uste dute falta dituztela, adibidez, bular bakarreko pertsonen erreferentziak eta bihurtzen dela ilea erortzea benetako arazo askorentzat tratamendua hastean.

Erabili zuen ile-ordea Searak ere, eta protesia jartzeko ebakuntza ere egin zioten bularra kendu ondoren. "Askotan, ematen du bularra berregitea zikloa ixteko ezinbesteko pausoa dela, baina ez da. Nik ere egin nuen saioa, baina ez nengoen gustura nire gorputzarekin, eta gorputzak berak ere ez zidan onartu protesia». Garbi dio emakumeoi inposatzen zaizkigun estereotipo estetikoek eragiten dutela halako erabakietan. "Bularra galtzea ez da beste gorputz atal bat galtzea bezalakoa, eta horri buruz hitz egin beharra dugu", zehaztu du. Estatu espainiarrean, urtero 16.000 mastektomia egiten dira, eta horietatik 4.800 kasutan ebakuntza egiten da bularra berregiteko. Nolanahi ere, badaude berreraiki ezin diren bularrak, bai eta aukera horri uko egiten dioten emakumeak ere. Beraz, urtean 11.200 bat *titibakar* gehiago dira, baina hala ere, "gorputz horiek biluzik erakustea iraultza egitea dela uste da oraindik eta batzuetan nahi ez lituzketen esaldiei erantzun behar izaten diete gure lagun inurriek, 'egin ezazu senarrarengatik'

eta halakoei, esaterako". Izan Iñurrin argi dute minbizia ez dutela beraiek aukeratu baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela. "Kasu bakoitza kasu bat da, eta denak entzuteko eta ahal dugunean laguntzeko gaude gu, ez baitugu ahaztu behar gaixo egotea garestia dela", nabarmendu du Arnauk. Osasungintza publikoan jarri dute begia. Onkologikoan artatu zituzten biak, eta ez dute jasotako tratuaz kezarik. Oso profesional onak topatu zituzten han eta "arreta gertukoa eta konfiantzazkoa" jaso zuten, baina tratamendu onkologiko hutsa den horrez gain, kimioterapia, radioterapia eta kirurgiaz gain alegia, beste tratamendu batzuk edo beste profesional batzuen laguntza ere behar izan dituzte prozesuan zehar -psikologoak, nutrizionistak...-, eta hori dena arlo pribatuan bilatu behar izan dute. "Gaixotuta nintzenez langabezia-saria jasotzen ari nintzen,

baina hilean 300 euroekin gelditu nintzen. Ez neukan laguntzarik jasotzeko eskubiderik ere, ez neramatzalako hemen hiru urte erroldatuta. Hala ere, beste asko baino hobeto nengoen, inguruan dudan sareak mantendu ninduelako ekonomikoki eta bestela. Minbiziak bizitzako arlo guztietan eragiten du, eta laguntza terapeutiko handia behar izaten dugu urte askoan, hau ez baita urtebeteko kontua askotan entzun behar izan dugun bezala", dio Arnauk. Patriarkatuaren itzalaz eta gaixotzean biderkatzen diren desberdintasun sozialez ari dira solasaldian, gaixo guztiek ez baitute gaixoaldia modu berean eramateko ahalik. Osasungintza publikoaren "eskastea" ere aipatu dute: "Gure inurri lagunek nabarmen igarri dute, bereziki pandemiatik hona", bota du serio Arnauk.

Horretarako osatu dute inurritegia. Emakumeak dira gaur gaurkoz Izan Iñurriren bueltan dabiltzanak eta ematen die horrek zer

pentsatua, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duenarentzat, "edozeinek duelako zer ekarria proiektura". Tribuaren indarra ezinbestekoa dutela diote, eta azpimarratu dute ez direla gerlari ikusten, askotan hala aurkeztu badituzte ere. Bizitzea tokatu zaiena nola-hala onartu eta ahal duten eran bere egin dutela diote, eta oso barneratuta dute Izan Iñurrik azpimarratzen duena: "Hobe besarkada eman bizitzari, energia borroka hutsaletan erabiltzeak ez duelako zentzurik". Ulertzen dute, hala ere, ingurukoen asmatu ezina. "Minbizia izandakoa izan arren, neuri ere gertatu zait beste bati zer esan ez jakitea", aitortu du Arnauk, baina badute gomendio bat, Maider Estensoro inurrikidearen ahotan entzun daitekeena beren Facebooken. "Ez bota begirada errukitsurik. Ez badakizue zer esan, ez esan ezer. Eman besarkada bat edo laztan bat. Bidelagun izatea nahikoa da; egote hutsa".

IZAN IÑURRIREN EGITASMO BATZUK ETA HARREMANETARAKO BIDEAK

'Minbiziari besarkada' zapi solidarioak:

Izan Iñurriren zapietako bat erosiz gero, minbizia duen pertsona batek zapi bat edo turbante pertsonalizatu bat jasoko du. Bere neurri eta beharretara egokitutako zapiak izango dira, eta diseinuan parte hartzeko aukera izango dute. Eskuz jositako zapiak izango dira denak. Harremanetarako: izan.inurri@gmail.com edo 658 525 058 (Julene) / 688 661 986 (Miren).

Tabuen kutxatik oholtzara bertso saio musikatua.

Oholtzara emakume bertsolariak eta zenbait musikari igotzen dira. Amaia Agirrek egin ditu gai-jartzaile lanak orain arteko saioetan eta inurrien bizipenetatik jarri ditu beti bertsolariantzako gaiak. Minbiziaren tabuen kutxan dauden gai guztiak azaleratzea eta normalizatzea dute bertso saioek helburu, antolatu dituzten beste ekitaldiek bezala. Urriaren 10ean Elgoibarren ematekoa dute saioa.

Egutegia: Minbizia duten hainbat emakumeren gorputzak erakutsi dituzte 2023rako egutegian, estereotipo estuen kontra egiteko.



Dibulgazioa. Bi podcast sortu dituzte: Bata euskaraz, *(MIN)bizia* eta bestea gaztelaniaz: *Dragón Cáncer*. Spotifyn eta Youtuben daude.

Harremanetarako: Izaninurri.com webgunea. Bertan ematen dute elkartearekin harremanetan jartzeko bidea, bai eta bazkide egin edo dohaintzak egiteko bidea ere. Instagramen ere badaude (@izaninurri).



"Aktore batentzat Hollywood dena da informatikari batentzat Silicon Valley"

MIKEL RUMAYOR

Ingeniari informatikoa

✍ Ainhoa Andonegi
🗣 Mikel Rumayor

Mikel Rumayor (Elgoibar, 1991) arrebaren bidetara segika hasi zen Ingeniaritza Informatikoa ikasten Mondragon Unibertsitatean. "Dudati" hasi zituen ikasketak, baina hartu duen erabaki onena izan zela dio. Gustuko ikasketak topatu zituen, eta ikasten ikasi zuela dio. Tecnalia, Ikerlan eta Ideko zentro teknologikoak ezagutu zituen, Cadiz-eko (Andaluzia, Espainia) Airbus fabrika ere jardun zen adimen artifizialeko alorrean lanean, eta gaur egun Kalifornian (AEB) bizi da, Silicon Valleyn, informatikarien paradisuari.

Kontaguzu, zer nolako bidea da Silicon Valleyra artekoa?

Mondragon Unibertsitatean egin nituen lau urteko ikasketak, eta lan praktikak Elgoibarko Ideko enpresan egin nituen. Sei bat hilabetez egon nintzen enpresan, eta beste zerbait ikasi behar nuela erabaki nuen. Iruditzen zitzaidan lau urteko ikasketak egin arren, unibertsitatean gauza gutxi ikasi genituela, eta Konputazio Ingeniaritza eta Adimen Artifizialari buruzko masterra egin nuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Urtebeteko masterraren ostean, Donostiako Tecalia enpresan egon nintzen praktikak egiten, eta han landu nuen proiektu baten bitartez, Cadizera iritsi nintzen, Airbusen fabrikara. Pila bat ikasi nuen han, baina lan gogorra izan zen. Aditu moduan eraman ninduten, baina ni oraindik hasiberria nintzen. 21 urte nituen, eta ardura handiko postua neukan. Arrasateko Ikerlan enpresara etortzeko aukera izan nuen, eta Airbuseko lana lagatzea erabaki nuen. Web teknologietan lanean aritu nintzen han. Idekoko praktikak ere alor horretan egin nituen, eta asko gustatu zitzaidan lan hura. Doktoretza egiteko proposamena egin zidaten Ikerlanen, zentro teknologikoetan ohikoa izaten da hori, eta hasieran interesgarria iruditu zitzaidan proposamena, baina azkenean ez egitea erabaki nuen.

Euskal Herritik Madrilerako bidea hartu zenuen.

Ikerlanekin lan egiten zuten beste enpresa batzuetara joateko eskaintza neukan, baina Ikerlanen bertan Oñatiko mutil bat ezagutu nuen, gerora Microsoft-en lanean hasi zena, eta hari eskatu nion aholkua; nire lekuan egonda, zer egingo zuen galdetu nion. Gaztea nintzen oraindik, eta esperimintatzeko eta mundua ezagutzeko gogoia neukan. Madrilerara joatea gomendatu zidan, web teknologiei buruzko ikastaro bat egitera. *Bootcamp* ikastaroa egin nuen, materia aldetik ez zidaten gauza berri askorik irakatsi, baina nire esperientzia praktikan jartzeko eta nire sarea zabaltzeko aprobetxatu nuen. Proiektuen lehiaketa bat egin genuen, eta neuk irabazi nuen. Oso ondo etorri zitzaidan ate berriak zabaltzeko. Nire proiektuaren berri zeukan neska batekin topo egin nuen Madrillgo informatika feria batean, eta esan zidan Estatu Batuetara joatekoa zela. Lantalde bat prestatzen ari zela eta nire profileko norbaiten bila zebilela. Ez zekien lana Madrilen bertan izango zen edo Estatu Batuetan, baina interesgarria iruditu zitzaidan.

"Informatika munduko enpresa garrantzitsuenak daude Silicon Valleyn"

Eta, zer erantzun zenion?

Baietz, jakina. Esperimintatzeko gogoz nengoen. Enpresa Estatu Batuetakoa zen, baina guk Madrilen geneukan lantokia. Ez genekien zenbat denborarako lana izango zen ere, eta bulegorik ere ez geneukan. Neska hura Estatu Batuetara joatekoa zen, baina ez zekien noiz joan beharko zuen ere, eta hasierako hilabeteak zalantzaz beterikoak izan ziren. Lagun baten etxean egon nintzen bizitzen Alcalá de Henaresen, eta trenez joaten nintzen Madrilerara, han utzi ziguten lokal batean lan egitera. Hilabete batzuek igaro ostean Estatu Batuetako nire nagusiak esan zidan ea hara joango nintzatekeen lanera.

Madrildik Silicon Valleyra. Informatikarien ametsa al da hara iristea?

Konparazio analogo samarra egingo dut, baina aktore batentzat Hollywood dena edo saskibaloi jokalaria batentzat NBA dena da informatikarientzat Silicon Valley. Beraz, probatzera joatea erabaki nuen. Bisatua lortzea kostatu zitzaidan. Erabakia hartu nuenetik, urtebete ingurura joan ahal izan nintzen Estatu Batuetara. 2019ko ekainean joan nintzen, pandemia hasi baino zortzi hilabete lehenago.

Nolakoa da Silicon Valley?

Bailara luze bat da, dena enpresaz betea. Ni Palo Alto bizi naiz, Stanford unibertsitatea dagoen inguruan. Ingeniaritza eta ekintzailetzari dagokionean unibertsitateak prestigiosuena da. Facebook ere han gertu dago, eta Google eta HP enpresak ere han sortu ziren. Informatika munduko enpresa garrantzitsuenak han daude, baina denetik dago. Jende oso ona, erdipurdikoa eta mediokreak ere badaude. Denbora batean etxea konpartitu nuen hiru lagunekin, eta bata Google-eko ingeniaria zen, bestea Amazoneko eta hirugarrena Facebookeko. Eta horiek nengoen ni, sinestezina. Konpententzia handia dago hemen, jendea lanera joaten da hara, lan munduko kontaktu berriak egitera. Han bizitzeko diru asko behar da, aberatsak bakarrik geratzen



dira. Gehienak ni bezalakoak dira han, lanera joandakoak, denbora jakin baterako, eta denbora tarte horri ahalik eta etekin handiena ateratzen ahalegintzen gara. Soldatak hemengoak baino hobek dira, baina bizimodua ere garestiagoa da. Gauza onak daude, baina txar asko ere bai. Ikasleek, esaterako, maileguak eskatu behar izaten dituzte askotan ikasketak egin ahal izateko. Oso garestiak dira unibertsitate ikasketak. Ikasketak amaitu eta lana aurkitzea ezinbestekoa da horientzat, mailegua ordaindu ahal izateko. Jende hori enpresa handietan sartzen saiatzen da, ahalik eta soldata hoberena eskuratu eta mailegua lehenbailehen kendu ahal izateko. Horregatik jendea oso lehiakorra da, posturik onenak lortu nahi dituztelako. Nik une honetan posible izango nuke apartamentu txikiren batean sartzea, baina nahiago dut etxea partekatu, ez dakidalako zenbat denbora egingo dudan hemen. Gutxieneko egonkortasun bat eduki arte, ez naiz horretan sartuko. Lagun batzuei lagundu diet etxer aldatzen, eta sekulako lana da. Estatu Batuetan oso ohikoa da etxer aldatzea; Euskal Herrian ez da horrelakorik ikusten.

Zein da zure lana?

Nire enpresan 800 langile gaude. Ni ingeniari-taldean nago, eta talde horretan 250 lagun gaude. Gure enpresak LinkedIn estiloko plataforma bat kudeatzen du, ikasketetako praktikak eta ikasketak amaitu ondoren lehenengo lana bilatzeko plataforma

*"Amazoneko ingeniari batekin,
Google-eko batekin eta Facebookeko
batekin partekatu nuen etxea.
Sinestezina zen egoera hura niretzat"*

da. Estatu Batuetan ikasketaz kanpoko merituek pisu handia daukate curriculumean, eta lan praktikak ere bai. Gure plataformak hori bilatzen laguntzen die. Orain dela zazpi urte jarri zuten martxan hiru ikasleek. Ikasketak bukatu zituzten eta lan praktikak aurkitzeko orduan konturatu ziren ezin zutela lehiatu Harvarden, Standforden edo Massachusseten ikasitako jendearekin. Beraiek profila bazuten arren, ez zituen inork ezagutzen. Hortik abiatuta sortu zuten plataforma, eta ikastetxeekin jarri ziren harremanetan. Gaur egun 13.000 zentrok erabiltzen dutela uste dut. Plataforma horren berri izan nuenean identifikatuta sentitu nintzen gazte horiekin, nik ere hemen antzerako zerbait bizi izan nuelako. Ikasketak amaitu nituenean ez zegoen erraztasun handirik praktikak topatzeko, eta pentsatu nuen ondo egongo litzatekeela ikasleei praktikak bilatzeko plataformaren bat egotea.

Nondik datorkizu informatikarako zaletasuna?

Ni oso ikasle txarra izan naiz beti. Eskolan kostata ateratzen nituen gauzak aurrera, motibazio falta nuela esaten zidaten, eta agian hala izango zen. Nire arreba ni baino sei urte

zaharragoa da, eta ingeniaritza informatikoa egin zuen Arrasaten, eta hura ikusi nuenean konturatu nintzen gustatzen zitzaidala berak egiten zuena. Horrela erabaki nuen probatzea, baina ez nuen uste ingeniaritza bat egiteko gai nintzenik. Aitortu behar dut, baita ere, uste nuela zailtasunen aurrean arrebak lagunduko zidala, baina azkenean ez nuen apenas beharrik izan. Dudatan hasi nintzen, baina ez naiz damutzen. Informatika ikasteaz gain, ikasten ikasi nuen eta hori bizitzarako oso garrantzitsua da. Edozein aldaketaren aurrean gauza berriak ikasi behar dira, eta horretarako prestatuta egon behar da.

30 urte dituzu eta iritsi zara informatikarien paradisura. Aurrerantzean zein dira zure asmoak?

Ez dakit, teknologia munduan gauzak oso azkar aldatzen dira, etengabe ikasten egon behar dugu, eta ez dakit non bukatuko dudan. Momentuz bisatua beste urte eta erdirako daukat, eta gero ikusiko dugu. Ni Estatu Batuetan immigrante bat naiz, baina immigrante pribilejiatu bat. Lanerako bisatu bat daukat, eta horrek baditu bere mugak, baina eskubide asko ditut. Ez daukat hango bizilagunek dituzten eskubide guztiak, baina asko bai. Bi urtez etorri ezinda egon naiz adibidez, pandemiagatik. Handik irteteko aukera baneukan, baina gero ezingo nintzatekeen itzuli. Lana galtzen badut, bi hilabete daukat berriz lana topatzeko, baina lanerako aukera asko dago AEBetan. Bidaiatzeko aukera ere izan dut. Alokairuan nengoen etxeko jabeak etxea salgai jarri zuen, eta tarte batean etxerik gabe geratu nintzen. Etxetik lanean ari ginen orduan pandemiagatik, eta nagusiari esan nion ea aukerarik izango nuen bidaiatzeko eta nengoen tokitik lan egiteko. Ez zidan arazorik jarri, eta hiru hilabete pasatu nituen nomada digital

"AEBetan jendea pila bat mugitzen da, ez daukate arazorik egun batetik bestera milaka kilometrora bizitzera joateko"

gisa bizitzen. Ekialdeko kostaldera joan nintzen, Washingtonera, Virginiara eta New Yorkera iritsi nintzen. Bi hilabete pasa nituen New Yorken eta han hartu nuen koronabirusaren kontrako txertoa!. AEBetan jendea pila bat mugitzen da, ez daukate arazorik egun batetik bestera milaka kilometrora bizitzera joateko. Euskal Herriko bizimodua askoz lasaiagoa da. Ni gustura nago, baina ausarta izan naiz eta hartu ditut nire arriskuak. Datorrena datorrela, momentua iristen denean erabakiko dut.



Nere Arregi txapelkunorde 18 urtez azpikoen Euskadiko Kros Txapelketan

Ortuella herriko Las Balsas izeneko zirkuituan jokatuko dira aurten Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako kros txapelketak, hirurak urtarrilean. Lehena, Bizkaiko Kros Txapelketa joan den urtarriaren 8an jokatu zuten, eta urtarriaren 15ean izan zen Euskadikoa. Maila absolutuetako lasterketetan, Iraia Mendia gipuzkoarra eta Urko Herran arabarra gailendu ziren. 18 urtez azpikoen kategorian lehiatu zen Nere Arregi Beitia, Mintxeta Atletismo Taldea ordezkatzuz, eta emaitza bikaina eskuratu zuen, txapelkunorde geldituta. Argazkian ikus daitekeen moduan, Nere Arregi (3551 dortsalarekin), lasterketa buruan joan zen probaren hasieratik eta ipini zuen eritmo biziaren ondorioz azkarrenen taldekoa sortu zuen. Horietatik Axpe Aja ermuarrak bakarrik egin zion aurre Mintxetakoari. Durangoko Bidezabal taldean diharduen Ajak lortu zuen garaipena 24 minutu eta lau segundoko denbora eginda. Arregi 24 segundora helmugaratu zen, eta irabazlearengandik 34 segundora heldu zen hirugarren sailkatua, June Rivas (Laudio atletismoa) arabarra.



Euskadiko txapelketan lortutako emaitzari esker, bere mailako Espainiako Kros Txapelketan lehiatzeko sailkatzea lortu du Nere Arregik. Aipatu moduan, hori ere Ortuellan jokatuko dute domekan, urtarriaren 29an. Hortaz, dagoeneko ezaguna duen 1.900 metroko ibilbidean lehiatuko da bere adineko Espainiako antxitxikaririk onenen aurka. Guztira adin guztietako 900 atleta espero dituzte Ortuellan. Hori bai, azken egunetako denboralearen eraginez putzuz eta lokatzez beteriko ibilbidea izango dute.



Ane Bastida, 12 urtez azpiko Euskadiko futbol selekzioaren deialdian

Duela gutxi Estanis Mugerzarekin gertatu zen moduan, C.D. Elgoibarreko beste jokalaria batek ere jaso du Euskal Selektzioaren deia, kasu honetan alebin nesken taldean diharduen Ane Bastida Diezek. Kirol taldeko arduradunek esan dute klubarentzat "ohore bat" dela Euskal selekzioan arituko den beste jokalaria bat izatea. "Zorionak, eta gozatu aukera Ane!", opa diote jokalaria gazteari. Gizezkoen eta emakumezkoen 12 urtez azpiko Euskadiko futbol selekzioiek lurraldeka egin dituzte azken deialdiak. Emakumezkoiei dagokionez, Gipuzkoako jokalariekin Alegiako Elorri futbol zelaian egin zuten entrenamendu saioa, astelehenean, eta saio horretan parte hartzeko deitu dituzte hainbat taldetako 24 jokalaria. Horietako bat izan zen Ane Bastida elgoibartarra.

Lau jokalaria Realaren teknifikazio saioetan

C.D. Elgoibarreko lau jokalaria gaztetxori teknifikazio saioetan parte hartzeko deia egin die Realak. Jokalari horiek Irati Arzamendi, Ane Agirre, Markel Kapanaga eta Asier Diez dira.



Dominekin itzuli dira Cesa 2023 eskubaloi txapelketatik

Espainiako Selekzio Autonomikoen Txapelketa (CESA 2023) Alicanteko hamaika herritan jokatu dute aurten, eta Sanlo eskubaloi taldeko hiru jokalarik parte hartu dute euskal selekzioarekin. Sare Iriondo kadete mailako euskal selekzioarekin lehiatu zen, eta jubenil mailako taldearekin aritu ziren June Zubiaurre eta Eider Elorza. Azken bi horiek gainera, txapeldunorde izatea lortu zuten. Kataluniako taldeari 26-24 irabazi zioten lehen partidari eta 33-21 galdu zuten bigarrenengan, Nafarroako selekzioaren aurka. Azken partidari 28-25 irabazi zioten Galiziari eta zilarrezko domina eskuratu zuten. Sare Iriondok jokatu zuen kadete mailako taldeak ezin izan zuten partidari irabazi. Kadete, infantil eta jubenil mailako selekzioak lehiatu dira txapelketa honetan; 2.500 eskubaloi jokalarik guztira.



Haundik bosgarren postuan hasi du bigarren itzulia, liderrarengandik zazpi puntura



Azken lau jardunaldietan lortutako emaitza onei esker, sailkapenean gora egin du Haundi futbol taldeak eta bosgarren postuan dago Ohorezko Erregional mailako sailkapenean, 29 punturekin. Orain arte jokatu dituzten 18 partidetatik zortzi irabazi dituzte eta bosna partida berdindu eta galdu. Lidergotzan Hernani dago, sendo, 36 punturekin. Hain zuzen, 3-1 irabazi zieten elgoibartarrek hernaniarrei orain bi jardunaldi, Mintxetan. Anorga dago sailkapeneko bigarren postuan (33 puntu), Eibar hirugarrenengan (32 puntu) eta Oiartzun dago elgoibartarren aurretik, 31 punturekin. Joan den zapatuan Beti-Gazteri 1-0 irabazi zion Haundik etxean, eta hurrengo jardunaldian aurkari zuzen bat izango du aurkari etxetik kanpo jokatuko duten neurketan, Urola K.E. hain justu ere. Haundik baino bi puntu gutxiago ditu sailkapenean Urolak.

Emakumeen talde nagusiak, berriz, erregional preferente mailako bigarren postua berreskuratu du, azken jardunaldian Aitzondo Neskide taldeari 1-2 irabazi eta gero. Hamabost jardunaldi jokatuta, 34 puntu dituzte elgoibartarrek, hirugarren dagoen Hernani taldeak batu dituen puntu kopuru bera, eta liderra den Usurbil taldeak baino bost puntu gutxiago. Hurrengo jardunaldian, asteburuan, Orioko F.T. taldea izango dute aurkari Mintxetan.



JON GURRUTXAGA URBIL ARTOLA

Musikariak

✍ Ainhoa Andonegi
👤 Gari Garaialde

1978an Txomin Artolak kaleratutako 'Belar Hostoak' diskoa kaleratu duzue berriro, disko bikoitz batean. Bata disko originalaren bermasterizazioa da, eta bestea, zuen bertsioekin osatutakoa. Non dago proiektu honen abiapuntua?

Urbil Artola: Loraldia festibaletik jaso nuen proposamen batean du abiapuntua. Walt Whitmanen testu euskaratuekin Txomin Artolak 1978an argitaratutako *Belar Hostoak* diskoaren berrikuspen bat egitea proposatu zidaten. Emanaldi hura 2022ko martxoan eman genuen Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean, eta abestien moldaketak eginak genituela baliatuz, horiek grabatzea erabaki genuen. Elkar argitaletxeari proposamena luzatu eta beraien eskutik kaleratu zen Durangoko azokaren bezperetan. Txomin Artolak 78an argitaratutako disko

Txomin Artolak Walt Whitmanen *Leaves of Grass* liburutik aukeratutako testuak euskaratu eta *Belar Hostoak* diskoa argitaratu zuen 1978an. Haren seme Urbil Artolak Bilboko Loraldia festibaletik Walt Whitman poetari omenaldi moduko bat egiteko proposamena jaso zuen, eta duela 44 urteko disko hura berrinterpretatu du. *Belar Hostoak I* eta *Belar Hostoak II* diskoak kaleratu ditu, lagunez inguratuta. Dani Venegas, Andoni Etxebeste, Antxon Sarasua eta Jon Gurrutzaga elgoibartarrak hartu dute parte lan berri honetan. Domekan kontzertua emango dute Kultur Kafean, 12:30ean.

bermasterizatua jasotzen du batetik (*Belar Hostoak I*), eta guk grabatutakoa bestetik (*Belar Hostoak II*).

Proposamena iritsi zitzaizunean, zer sentitu zenuen?

Ardura, poza, bertigoa... guztiak sentitu nituen. Oso erakargarria bazitzaidan ere, errespetuz begiratzen nuen proposamena, ondo ezagutzen nituen abesti eder horiek birmoldatzea erronka handia baitzen.

Urbil, zer izan da zuretzat aitaren lan hura 44 urte geroago zuk zeuk kaleratzea?

Aitaren diskografiatik harago, nire disko kuttunen artean dago *Belar Hostoak*. Berezia bezain ederra izaten ari da bizitzen ari naizena.



Eta, aitak, nola hartu zuen?

Oso ondo hartu zuen. Lehen urrats haiek urrunetik jarraitu bazituen ere, Loraldiako emanaldiaren ondotik, diskoa grabatzea erabaki genuenetik, ondoan izan dut. Abestien konponketa berriak, baina, diskoa grabatu ondoren ezagutu ditu. Lan berriaren entzule fidelagorik nekez topatuko dugu inguruan. Askok gustatu zaizkio konponketa guztiak eta musikari bakoitzaren ekarpena. Jonen lana goraiatu du maiz. Bere interpretazioa bikaina izan dela dio. Neurri batean niri gertatu zaidanaren antzeko zerbait gertatu zaiola uste dut: disko hartako zenbait abesti urte luzeetan oso presente izan baditugu ere, beste batzuk gure memorietan denborak nahiko atzean utzitakoak ziren eta abestien berraurkitze moduko bat bizi izan dugu. 78ko *Belar Hostoak* lan osoaren berraurkitze bat bizi izan duela esango nuke ere.

Musikari lagunez inguratuta egitea erabaki zenuen. Nola moldatu zarete diskoa egiteko?

Buelta asko eman nizkion musikarien aukeraketari. Musikari lagun asko ditut inguruan, eta guztiekin imajinatzen nituen emaitza ederrak bezain ezberdinak. Proiektuan sinetsiko zuten lagunez inguratu nahi nuela argi nuen hasieratik. Musikaz harago, Whitman ezagutzera iritsi eta modu batera edo bestera, bere filosofiarekin bat egingo zutenak gainera.

"Proposamena jaso nuenean ardura, poza, bertigoa... denak sentitu nituen.

Oso erakargarria bazitzaian ere, errespetuz ikusten nuen proposamena"

- Urbil Artola -

Diskoko hiru abestiren moldaketak nondik jo zezaketen argi nuen eta bere horretan plantetau nizkion Daniri. Gainontzekoak berak proposatu ditu. Musikari bakoitzak eman zezakeenaren jakitun, ia bakoitzaren neurrira egindako lana izan da. Entsegutarako, bost lagunen agendak uztartzea zuen zailtasuna ikusita, distantzian lan egitera behartuak egon gara. Konponketa berriak emailaz trukatu eta entsegurako elkartu ginen lehen aldian, Loraldiako emanaldirako ia puntuan ginela ohartu ginen.

Aitari ez al zenion eskaini abesteko aukerarik?

Bai, noski! Bururatzen zitzaizkidan aukeren artean berea zen lehena. Abestiak berak sortu zituen, eta berarekin lotzen ditut naturalki. Baina berak argi zuen lan berriak zentzu guztietan izan behar zuela ezberdina, eta arrazoiz zuen. *Belar Hostoak* 75eko udan konposatu eta 78an argitaratu zuen, testuinguru jakin batean. Etapa hura hasi zuen bezala, bere unea iritsi zenean itxi zuen.

Jon Gurrutxaga, zu izan zara disko honetako musikarietako bat. Zein izan da zure lana diskoan?

Abesteaz arduratu naiz. Txominek 1978ko diskoan egin zituen melodiak oinarri hartuta eta haien egituretatik gehiegi aldendu gabe grabatu ditut ahotsak. Grabaketa originalaren esentzia mantentzen saiatu naiz, baina bertsio berriei nire ukitu pertsonala emanaz.

Nola hartu zenuen Urbilen proposamena?

Ilusio handiz. Banekien Urbilentzat proiektu berezia zela, eta poz handiz hartu nuen. Ardura ere sentitu nuela onartu behar dut, euskal musikaren historikoetako bat da Txomin, eta askorentzat disko kuttuna da *Belar Hostoak*. Horregatik, lan txukun bat egin nahi nuen. Ohore bat izan da lan honetan parte hartzea.

Ezagutzen zenuen disko originala?

Loraldiaren proposamena jaso baino urte bat lehenago-edo ezagutu nuen Urbilen etxean, *Kateak* nire diskoko kantuak entseatzan ari ginela. Txominen ibilbideaz hitz egiten ari ginelarik, apaletik atera eta entzuteko utzi zidan Urbilek diskoa. Gogoratzen dut autoan nindoala entzun nuela lehen aldiz eta txundituta gelditu nintzela. Ez nuen halakorik espero, estilo asko lantzen dira: folka, rock progresiboa...


Orain dela 44 urte idatzitako letrak dira, Walt Whitmanek idatzi eta Txomin Artolak euskaratutakoak. Gaur egungo gizartean ba al dute lekurik letra haiek?

Urbil: Duela 44 urte inguru euskaratuak izan ziren bere hitzak, bai, baina XIX. mendean idatzi zituen Walt Whitmanek (1819 / 1892). Bizi zen garaietarako aurreratua zela diote, baina jaio zenetik 200 urte pasatu diren honetan, bizi ditugun garai hauetarako ere aurreratuegia litzatekeela pentsatzen dut.

Jon: Gaur egun abiada bizian bizi gara, gauza asko batera egin behar ditugu, eta azkar bada, hobe. Eta, hain zuzen ere, horren aurrean, tarteka denok egin beharko genukeena planteatzen digu Whitmanek bere olerkietan: gelditu, gauzak patxadaz hartu, kontenplatu... Naturaz ere asko hitz egiten du bere testuetan.

Abesti klasikoak dira. Zein moldaketa egin dizkiozue?

Hamarkadetan zehar entzun eta eragin



"Grabaketa originalaren esentzia mantentzen saiatu naiz, baina bertsio berriei nire ukitu pertsonala emanaz"

- Jon Gurrutxaga -

diguten musika estilo ezberdinei egindako keinuez josita dago disko berria. Abesti bakoitzak mundu ezberdin batetara garamatza eta zentzu horretan aberatsa da. Nola ez, hitzek dute garrantzia eta pisu handiena gure berrikuspenean ere, eta esentzia 78ko berbera da.

Gustura geratu zarete? Zer entzungo dugu domekan Elgoibarren?

Jon: Oso pozik gaude emaitzarekin. Loraldiako emanaldia prestatzen asko gozatu genuen; hain gustura geratu ginen egindako moldaketekin, ezin genuela egindako lana emanaldi bakarrean utzi. Giro ederra dugu taldean, eta orain zuzenekoetaz gozatzea da helburua.

Urbil: Oso pozik gaude biziakoarekin, baita diskoan islatzen denarekin ere. Pozgarria da baita ere Elgoibatik eta beste herrietatik azaldutako interesa ere. Getarian egin genuen azken emanaldi hartatik egokitzapen txiki batzuk egin ditugu, eta aurrera dezakegu Elgoibarren estreinatuko ditugula. Gainontzekoa Aita Agirre Kultur Kafean aurkituko duzue igandean, 12:30etik aurrera.

Bertsioen playback lehiaketa antolatu dute inauterien zapatu gauerako

Bete-beteak eta berrikuntzekin datoz aurtengo inauteriak. Atxutxiamaiak eta Udalak elkarlanean, Bertsio Gaua antolatu dute otsailaren 18rako. Taldeka zein bakarka parte hartzeko aukera egongo da, playback eginez. Taldekako lehen saria 250 eurokoa izango da, eta bigarrena 170 eurokoa. Bakarkakoetan 170 euroko sari bakarra banatuko dute, eta horrez gain, 150 euroko beste sari berezi bat ere egongo da. Maalako parkean izango da 00:00etatik aurrera. Izena egunean bertan edo aurrez eman daiteke, www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eta 747 489 048 whatsapp zenbakian.

Txikientzat, bestalde, Atxutxikaraokea egongo da arratsaldean. 17:30ean izango da, Maalako parkean eta unean bertan eman behar da izena.



Horrez gain, txarangaren kalejira eta herri dantzak ere antolatu dituzte zapaturako. Eta martitzen inauteri egunean Kantu Kolore taldearen ikuskizuna izango da Herriko Antzokian.

Elgoibar Ikastolak euskal inauteria irudikatuko du hilaren 17an, eta Sinuösek inauterietako kontzertu berezia emango du.

'Mintza ON' egitasmoa jarri du martxan Elgoibarko Udalak, euskarazko mintzapraktikak online egiteko

Elgoibarko Udalak eta Ebete enpresak *Mintza ON* proiektua jarri dute martxan, etxetik eta online euskara praktikatzeko helburuarekin. Euskara erabiltzeko aukera murrizak dituzten ikasleentzako programa da, eta LH3tik LH6ra arteko ikasleei emango diete parte hartzeko aukera. Ikasleak talde txikitik aurrera dira euskaraz, hezitzaileen laguntzarekin. Astean behin, 45 minutuko saio bat egongo dute, eta guztira, 14 saio izango dira

otsailetik udako oporrak hartu arte. Interesatuak otsailaren 1erako eman behar dute izena mintzaon@ebete.eus helbidera idatzita edo 943 744 366 telefonora deituta. Matrikularen prezioa 12 eurokoa da. Izena eman ondoren, partaideei egitasmoan parte hartzeko informazio osagarria bidaliko diete: konexiorako lotura, ordutegia, ordainketa egiteko argibideak eta beharrezko bestelakoak.

Udalean euskararen erabilera normalizatzeko lankidetzaren hitzarmena adostu dute Debabek eta Elgoibarko Udalak

Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitateak eta Elgoibarko Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute 2023rako, eta Udalak 45.772,04 euroko ekarpena egingo dio Debaberi. Euskararen erabilera normalizatzeko VII. Plangintzaldiari ekingo dio Udalak aurrera, eta, horregatik, beharrezko jarraipen-lanak egiteko, itzulpen-lanak barne, Udalak beharrezkotzat jo du Debabeko Udal Euskaltegien Mankomunitatearekin lankidetzaren aritzea.



Udalak 423.078 euroko dirulaguntza eman dio Musika Eskolari, 2022ko jarduera finantzatzeko

Elgoibarko Udalak onartu du Inazio Bereziartua Musika Eskolari 423.078,00 euroko dirulaguntza izenduna ordaintzea, 2022ko jarduera finantzatzeko. Azken ekitaldia izango da Inazio Bereziartua Musika Eskola dirulaguntza izendun baten bidez finantzatuko dena; izan ere, aurrean eskola Kultura Sailari atxikitako udal-zerbitzu bat da, egungo Herritartasun Sailaren barruan. Hala onartu zuen udalbatzak 2022ko maiatzaren amaieran egindako osoko bilkuran, "etorkizunean gizartearen onarpen zabala izango duen eskola bat herrian mantenduko dela bermatzeko".

Inazio Bereziartua Musika Eskola 1984ko maiatzaren sortu zuten, 1980ko xedapen bati helduta. Xedapen horren bidez, oinarritzko irakaskuntzako musika-zentroak abian jartzea arautu zuten, aitortutako ikastetxe ez-ofizial gisa. 1990ean Elgoibarko Udalaren Musika Fundazioa sortu zuten Udalak. Udal-titulartasuneko musika-



eskola da, eta Udalak dirulaguntza izenduna ematen zion elkarte batek kudeatzen zuen orain arte. Aurrerantzean, Inazio Bereziartua Musika Eskola ekonomia eta administrazio arloan Elgoibarko Udaleko gobernu organoek beren eskumenen esparruan hartzen dituzten erabakien menpe egongo da.

'Auzoko familiak' Mufomi fosil eta mineralen museoan izan dira



Auzoko familiak egitasmoko familiek Mufomi fosil eta mineralen museoa ezagutu dute. Joan zen astean egin zuten bisita. Museoako aretoetan erakusten diren piezen bitartez, historian zehar bidaiatzeko aukera izan dute, hango langileen gidaritzapean. Egitasmoko beste talde batzuk datozen asteetan joango dira museoa ezagutzera.

Euskaratik, elkarbizitarako zubi bat eraikitzeko

jarri zuten abian *Auzoko familiak* egitasmoa, eta taldeak zabalik du atea familia gehiagok gerturatu nahiko balu ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrararen bulegoan, Elgoibar Ikastolan, Herri Eskolan, HAZen zein Udal Ludotekan galdetu daiteke. Bestela, aisialdia@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi daiteke edo telefono zenbaki hauetara deitu: 943 741 626 / 747 487 058 (Gorane).

'Herri bat dantzan' marrazki lehiaketa antolatu du Haritz Euskal Dantzari Taldeak

Haritz Euskal Dantzari Taldeak 50 urte beteko ditu aurten, eta urte osorako egitaraua prestatu dute. Lehenengo ekintza martxan dute dagoeneko: marrazki lehiaketa antolatu dute ikastetxeekin elkarlanean, *Herri bat dantzan* lemapean, eta Elgoibarko ikasleak gogoeta artistikoa egitera gonbidatu nahi dituzte. Hiru mailatan bereiztu dute lehiaketa: LH1-2-3; LH4-5-6; DBH. Maila bakoitzean Txankakuako dendetan gastatzeko 100 euroko bi bono banatuko dituzte. Otsailaren 10a izango da lanak entregatzeko azken eguna. Musika Eskolan edo ikastetxean bertan entregatu daitezke marrazkiak. Sari banaketa otsailaren 18an izango da, eguerdiko 12:15ean, Kalegoen Plazan, Inguma taldearen kale-erromeria hasi baino 15 minutu lehenago.



Urtarrilaren 31n amaituko da orri markagailuen lehiaketan parte hartzeko epea

Gotzon Garate Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du, *Itsasoa zainduz, etorkizuna babestu* lemapean, eta urtarrilaren 31n amaituko da parte hartzeko epea. Bi mailatan banatu dute lehiaketa: LH5era artekoak eta LH6tik aurrerakoak. Orri markagailuak irudi originala izan beharko du eta 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera. Lanak liburutegian bertan edo helbide honetan entregatu behar dira: liburutegia@elgoibar.eus. Izena, bi abizen eta kurtsoa zehaztu behar dira.

'Trash' antzezlan gaur, Herriko Antzokian



Bota literak! gazteentzako idazketa klubean izena emateko aukera dago

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak bigarren urtez abiatu du Bota literak! gazteentzako idazketa kluba Jasone Osoro idazle elgoibartarrekin elkarlanean, eta nahi duenak izena emateko aukera dauka. 943 744 366 telefonoan edo euskara@elgoibar.eus helbidean eman daiteke izena. Saioak bariku arratsaldeetan izango dira, 17:00etatik 18:30era arte, maiatzaren 26ra arte. Ekimenak helburu didaktikoa dauka, eta saioetan testuak idazteko argibideak ematen dira, baina oso era praktikoan.

Yllana y Töthem konpainiak *Trash* antzerkia aurkeztuko du gaur Herriko Antzokian. Antzezlan honek umorea, perkusioa eta birziklapena ditu oinarri eta 80 minutuko iraupenarekin, egungo gizartearen gehiegizko kontsumoaren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko ditu ikusleak. Zabor birziklategi batean kokatzen da istorioa. Bertan, irudimen handiko lau langilek erabilera berriak ematen dizkiete bertara iristen diren hondakinei. Sarrerak lehiatilan bertan erosteko aukera egongo da, eta bestela, herrikoantzokia.eus webgunean eros daitezke. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke gauetan edo asteburuetan.

651 432 384

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gauetan edota asteburuetan. Esperientzia.

631 085 827

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan. Esperientzia handia.

666 493 717 (Maria)

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan, orduka edo gauetz. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak legez.

631 425 686

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat lanotan eta berehala hasteko moduan nago. Orduka zein egun erdiko lanaldian.

632 415 374

Gizonezkoa lan bila. Edozein lan egiteko prest nago. Nekazal ingeniaria naiz, gidabaimena daukat eta espainiar nazionalitatea. Malgutasun osoa eta lanerako gogo handia. Banatzaile, lorezain edo beste edozer egiteko prest nago.

658 782 715 / 747 474 354

Klase partikularrak emango nituzke, edozein arlotakoak, LH mailan. 630 915 031

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat.

685 724 861

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. 612 294 738

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. 641 739 472

Eskaintza

Batxilergoko 1. mailako ikasle bati matematika eta fisika eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dut. 669 339 529

GARAJEAK

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin. 943 531 131

ETXEBIZITZA

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Elgoibar inguruan.

688 642 761

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

943 740 331 / 643 305 876

BESTELAKOAK

Scooter electricoa invacare Orion modeloa saltzen da. Pertsonalizatua, larruz egokitutako eserlekuarekin. 659 329 118



 <p>Consejo Vasco de Ciencias de Administración de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Lanaldiko Kondeak</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Zuzendaritzako karguak berritzera doan komunitatean bizi naiz. Estatuetan garajea elementu banaezin moduan ageri da, elementu komunetan %21eko partaidetzarekin. Jakin nahi nuke zuzendaritzako presidente edo idazkari izan daitekeen garajeetako jaberaren bat. Gainera, garaje jabe batzuk beraien plaza itxi egin dute, hormak elementu komunetan eginez. Ez dutenez baimenik eskatu, jakin nahi nuke garajeen komunitateko baimena behar duten edo eraikin guztiarena.</p> <p>Hasteko, garaje jabeen artean aukeratutako bat izan daiteke presidente edo idazkari batzarretara joan eta bozkatzeko. Gero eraikineko etxejabeen batzordeak aukeratu beharko du ordezkarria. Bigarren galderari dagokionean, garaje bat itxe garajeen komunitateari dagokion ekintza da, beraz, Kode Zibileko Ondasunen komunitatea arautzen duten baldintzen arabera aztertu behar da. Printzipioz, ekintza hori printzipio horien kontrakoa da, baina beharrezkoa da Ondasunen Komunitateko barne araudia ezagutzea seguru egoteko. Obra horrek ez badie kalterik egiten elementu komunei, Etxejabeen Komunitate Orokorrek ezingo du kontra egin, etxejabe batek bere etxe barruan horma bat jartzen duenean egiten ez duen bezalaxe.</p> <p>ONDORIOA: Eman dituzun datuen arabera, ez du ematen hormak elementu komunetan jarri izanak eraikinaren segurtasun eta erresistentziari eragiten dionik. Kontrara izan balitz, Komunitate Orokorrek, Garajeetako Komunitateak edota edozein etxejabe norbanakok hasi ditzake erreklamazioak.</p> <p>OHARRA GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidailita.



Zorionak, **Laia**, igandean 9 urte bete zenituelako. Muxu potolo asko, bereziki, Mararen partez.



Eta, gaur, 4 urte! Zorionak, **Alai!** Ondo-ondo pasa eguna! Patxo potolo bat Errioxara, Elgoibartik eta Ondarrutik.



Zorionak, **Sulaiman!** Askok maite zaitugu! Ondo pasatzea espero dugu!



Zorionak, **Josu!** Muxu handi bat ebekoen partez. Askok maite zaitugu.



1,2,3,4... Badator! Martitzenean 10 urte, **June!** Segi trostan, segi galopan, eta bizi pozik! Muxu bat, lagunen partez.



Gure taldeko Altunak 8 urte bete zituen atzo. Zorionak, **Egoi!** Ez galdu irribarre hori eta eman gogor pilotari, laster zara Altuna edo Lasoren pare eta!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitez harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

943 744 112
barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



BARREN



EXPRESS ESKAINTZAK!

**LG 65 "65UQ79006LA
LED TELEBISTA**



- 4K
- SMART TV
- HDR 10
- MAGIC REMOTE-arekin.

569 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuski agortu arte.

27 BARIKUA

18:00-19:30 'Bullying-egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu' hitzaldia, TREBA Gazteak prestakuntza programaren barruan. Mendaroko udaletxeko pleno aretoan.

19:00 Antzerkia: 'Trash'. Yllana konpainiak taularatuko du, Herriko Antzokian.

20:00 Elkarretaratzea. Sarek deituta, Kalegoen plazan.

28 ZAPATUA

9:00 Hil bukaerako feria. Kalebarren plazan. Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa ere egongo da.

16:00 Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa. Kultur Kafean.

29 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Belar hostoak. Aita Agirre kulturgunean.

30 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa: 'En la historia faltan ellas'. Lilan.

2 EGUENA

10:00 Kandelaria Eguna. Kandelak bedeinkatzeko meza. San Bartolome parrokian.

3 BARIKUA

10:00 San Blas Eguna. Opilen bedeinkazioa (mezarik gabe). San Bartolome Parrokian.

19:00 San Blas opilak bedeinkatzeko meza. San Bartolome parrokian.

19:00 San Blas eguneko meza Azpilgoetan, Mendaron.

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lanpostuak betetzeko delaldia egin du:

Doimak

**LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUTEN MUNTATZAILEAK BEHAR DIRA.
(INGELESEZKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)**

Interesdunak bidali zuen curriculumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora edo 943 740 988 (Claudio) telefonora deitu

Zinea



'El peor vecino del mundo'

28 zapatua: 19:00 / 22:15
 29 domeka: 19:00
 30 astelehena: 21:00

'Inspector Sun y la maldición de la viuda negra'

29 domeka: 16:30

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

URTARRILA

27 BARIKUA
 28 ZAPATUA
 29 DOMEKA
 30 ASTELEHENA
 31 MARTITZENA

OTSAILA

1 EGUAZTENA
 2 EGUENA
 3 BARIKUA

Egunez

Arriola
 ■ Fernandez / ■ Garitaonandia
 ■ Fernandez
 Yudego
 ■ Oruesagasti

Egunez

Barrenetxea
 ■ Ibañez
 Garitaonandia

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
 Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384



I.URTEURRENA
Alipio Alonso Ruiz

2022ko urtarrilaren 29an hil zen, 74 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 29an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

**Ezin ikusi,
 baina bai senti,
 joan zinen arren,
 gure bihotzean
 beti zaude bizirik.**

Etxekoak



Jesusa Aizpitarrek ekarri du aste honetako erretratu zaharra BARRENERA. 1957. urteko argazkia da, eta San Bartolome Txiki egunean aterata dago. Argazkian ikusten denez, egun hori lehen ere kuadrillan ospatzekoa izaten zen, eta ohitura zegoen inguruko herrietako lagunak ere etortzea. Kasu honetan, Elgoibarko kuadrilla honetara Ondarruko lagunak ere etortzen ziren. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: Gerardo Uribe, Luis Fernando Astigarraga, Javier Rezola (†), ondarrutarra, Javier Etxaniz, ondarrutarra, Jose Osoro, Antonio Aizpiri (†), Julian Etxeberria (†), Jose Mari Etxeberria (†).



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkiak baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:


e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.





Maria Luisa Loyola Iriondo

2023ko urtarrilaren 19an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Juan Mari Aranbarri Etxaniz

2023ko urtarrilaren 23an hil zen.

***Zuk utzitako hutsunea
denoi egiten zaigu nabarmena.
Zure irribarre eder horrekin
jarrai argitzen gure bihotz barrena.
Aio, Juanmari.***



II. URTEURRENA

Patxi Zabala Gandiaga

2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***

Etxekoak



GREMIONEN GIDA

ELEKTRIZITATEA

egoluz 
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

AROZTEGIA

Ulazia
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ITURGINTZA

SANTANA 
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
www.iraolagoitia.com



ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
Faxa: 943 743 565
bienda@pagogagasa.com
www.pagogagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagogagasa.com
943 740 279



LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490



AROZTEGIA

MAR AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinterialmar@hotmail.com





PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com



AROZTEGIA

BIENA S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eu
info@biena.eu




ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosano kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168



Gidan agertzearen onurak!

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eu

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

22€
hilero

12
aldiz urtean

4.885
euro astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakuslelho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.